IRAGARKIA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, 98/03 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion 331/367/02 administrazio-espedientea bidali eta interesatuta dauden beste guztiak epatzekoa. 13807

ANUNCIO del Director de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, de remisión del expediente relativo al recurso administrativo Sanciones 331/367/02, correspondiente al recurso contencioso-administrativo n.º 98/03 y emplazamiento a terceros interesados. 13807

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-4084

4/2003 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzen duena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

EKAINAREN 25EKO 4/2003 LEGEA, GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO LEGEA ALDATZEN DUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak honako helburu hau du: pertsona gizartean eta lanean baztertua izateko arriskuari aurrea hartzeko eta, halaber, mendekotasunik gabe bizitzeko behar besteko baliabiderik (norberaren edo gizarteko edo diruzko baliabiderik) ez dutenei gizarteratzen laguntzeko beharrezkoak diren gizarte-mailako baliabideak eta diru-laguntzak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegorako. Halaber, beharrezko den erakunde-antolamendua, plana eta programak eratuko ditu bazterkeriari aurrea hartzeko eta pertsona horiek gizarteratzeko ahaleginei eusteko.

Bazterkeriaren aurka jarduteko tresnetako bat gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera da eta honela dago definituta: aldian aldiko diru-laguntza da, bizitzeko oinarrizko gastuei aurre egiteko behar besteko dirurik ez duten pertsonen premiak betetzeko.

Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legeak oinarrizko errentarekin gauzatzen du eskubide hori. Oinarrizko errentak gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera ordezkatzen du, baina ez ditu aldatzen laguntza horren izaera juridiko eta oinarria. Diru-laguntza hori izan izango dela bermatzen du lege ho-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-4084

LEY 4/2003, de 25 de junio, de modificación de la Ley contra la Exclusión Social.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley

LEY 4/2003, DE 25 DE JUNIO, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, tiene por objeto regular, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los instrumentos de carácter social y las prestaciones económicas que resulten necesarios para prevenir el riesgo de exclusión personal, social y laboral, así como para contribuir a la inserción de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para desarrollar una vida independiente, estableciendo así mismo la organización institucional y el plan y programas que resulten necesarios para sustentar los esfuerzos de prevención de la exclusión y de inserción de las personas afectadas.

Uno de los instrumentos de lucha contra la exclusión es el ingreso mínimo de inserción, que se define como prestación periódica de naturaleza económica dirigida a cubrir las necesidades de aquellas personas que carezcan de recursos económicos suficientes para hacer frente a los gastos básicos para la supervivencia.

La Ley 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales, consagra el derecho a una renta básica, que sustituye al ingreso mínimo de inserción pero sin variar la naturaleza jurídica y fundamento de esta prestación, garantizando, de un lado, la existencia misma de dicha prestación, y, de otro, el derecho de todas las

rrek, batetik, eta, bestetik, pertsona guztiek eskubidea dutela halako diru-sarrera batzuk eskuratzeko, aukera izan behar baitute herritar-eskubideak edo oinarrizko gizarte-eskubideak erabiltzeko eta arrazoi ekonomikoek eragindako gizarteko bazterkeria ekiditeko (pobrezia-egoerak desagerraraziz).

Gizarte Eskubideen Agiriak ez zuen aldatu oinarrizko errentaren diru-laguntza eskuratu ahal izateko gutxieneko adinaren baldintza eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak ezarritakoa da oraindik ere gutxieneko adina.

Lege honetako 18. artikuluan pertsonek laguntza hori eskuratu ahal izateko bete behar dituzten baldintzak arautzen dira, eta horien artean 25 urte baino gehiago izan beharra aipatzen da 1. d) paragrafoan. Hala ere, muga horren ezarpenerako salbuespena izango diren egoerak ere azaltzen dira.

25 urte baino gehiago izan beharrak oinarrizko errentarako eskubidetik kanpo uzten du gazteriaren zati garrantzitsu bat, ikasketak dagoeneko amaituta dauzkaten edo lan-merkatuan sartu nahian dabiltzan eta une horretan beren kabuz duintasunez bizitzeko ekonomi baliabide nahikorik ez duten eta, horrenbestez, gurasoen etxean bizitzera behartuta dauden gazteak, hain zuzen. Horregatik beharrezkotzat jo da oinarrizko errenta eskuratu ahal izateko gutxieneko adina 23 urtera jaistea, muga hori hobeto egokitzen baita gazteriaren eta, oro har, gure gizartearen helburutara.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak I. tituluaren barruan («Euskal Herriari dagozkion eskumenak»), 10. artikuluko 12. eta 39. paragrafoetan Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio eskumen esklusiboa gai hauetarako: gizarte-laguntza eta erkidego-garapena, emakume izaera eta haurrentzako, gazteentzako eta hirugarren adinekoentzako politika.

Ondorioz, lege honen bitartez aldatu egiten da maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 18.1d) artikulua.

*Artikulu bakarra*

Honela geratu da idatzita Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen «Eskubidedunak» izeneko 18. artikuluko 1. d) paragrafoa:

«d) 23 urte baino gehiago izatea.

Salbuespena izango dira 23 urtetik beherakoak, baldintza hauetan: gainerako baldintza guztiak beteta, ekonomikoki beren ardurapean baldin badituzte adin txikikoak nahiz ezintasunen bat duten pertsonak, edo aitarik edo amarik gabeko umezurtzak badira. Halaber, salbuetsitzat joko dira 23 urtetik beherakoak, gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte eta beste pertsona batekin ezkontzaz edo ezkontzaren antzeko harremanez loturik badaude sei hilabete lehenagotik gutxienez».

personas a percibir unos ingresos en cuantía suficiente para ejercer sus derechos de ciudadanía o derechos sociales básicos y evitar así la exclusión social por motivos económicos, eliminando situaciones de pobreza.

El requisito de edad mínima para poder acceder a la prestación de renta básica, no modificado por la Carta de Derechos Sociales, sigue siendo el establecido por la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social.

El artículo 18 de esta Ley regula los requisitos que deberán cumplir las personas para poder ser titulares de esta prestación, entre los que se incluye en su apartado 1.d) el de ser mayor de 25 años, contemplándose, no obstante, distintos supuestos en los que se exceptúa la aplicación de dicho límite de edad.

El requisito de ser mayor de 25 años de edad excluye del derecho a la renta básica a un sector significativo de la juventud que, habiendo finalizado ya sus estudios, o bien deseando incorporarse al mercado laboral, no puede disponer en ese momento de los recursos económicos suficientes para desarrollar con dignidad una vida independiente, y se ve obligado, en consecuencia, a permanecer en el domicilio familiar. Por ello, se ha considerado necesario reducir el requisito de edad mínima para acceder a la renta básica a los 23 años, más acorde con las aspiraciones de la juventud y, en general, de nuestra sociedad.

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, dentro del Título I, «De las competencias del País Vasco», en el artículo 10, apartados 12 y 39, reserva a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en el ámbito de la asistencia social y el desarrollo comunitario, condición femenina y política infantil, juvenil y de la tercera edad.

En consecuencia, mediante la presente Ley se modifica el artículo 18.1.d) de la citada Ley 12/1998, de 22 de mayo.

*Artículo único*

El párrafo d) del apartado 1 del artículo 18, de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, rotulado «Titulares del derecho», queda redactado de la manera siguiente:

«d) Ser mayor de 23 años.

Quedan exceptuados los menores de 23 años que, reuniendo el resto de los requisitos, tengan económicamente a su cargo a menores o a personas con minusvalía, así como los huérfanos de padre y de madre. Igualmente, se considerarán exceptuados los menores de 23 años que, reuniendo el resto de los requisitos, estuviesen unidos a otra persona por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación».

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Bera indarrean sartu aurretik hasita dauden oinarrizko errenta aitortzeko, berrikusteko, aldatzeko, indargabetzeko eta amaitzeko prozedurei aplikatuko zaie lege hau.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehendabizikoa.***– Araudi bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzari baimena eman zaio lege hau garatu eta ezartzeko beharrezko xedapenak eman ditzan.

***Bigarrena.***– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 4a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

La presente Ley se aplicará a los procedimientos de reconocimiento, revisión, modificación, suspensión y extinción de la renta básica iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la misma.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Ley.

***Segunda.***– Entrada en vigor.

La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## Zk-4085

142/2003 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuko 4312 Programan «Etxebizitza» diru-sarrerak lortu direla-eta, programa berberean 1.392.353,71 euroko kredituak habilitatzen dituena.

Babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 315/2002 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, 1.392.353,71 euroko osagarrizko diru-sarrerak lortu dira, babes ofizialeko zenbait etxebizitza deskalifikatu egin direlako.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 1.392.353,71 euroko zuzkidura eskatu du «erabilitako etxebizitza librea» egitarau berria finantzatzeko. Egitarau hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko urriaren 9ko Aginduaren bidez arautu zen, 4312 Egitarauaren barruan «Etxebizitza», eta eragin-kortasun handia izan du ordutik.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

## N°-4085

DECRETO 142/2003, de 1 de julio, por el que se habilitan créditos en el Programa 4312 «Vivienda» por ingresos obtenidos en el mismo Programa, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2003, por importe de 1.392.353,71 euros.

Se han obtenido ingresos adicionales por importe de 1.392.353,71 euros provenientes de ingresos obtenidos por descalificaciones de viviendas de protección oficial, como consecuencia de la entrada en vigor del Decreto 315/2002, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales ha solicitado dotación presupuestaria por 1.392.353,71 euros para la financiación del nuevo programa de «vivienda libre usada», regulado por Orden de 9 de octubre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, en el marco del Programa 4312 «Vivienda», que está presentando un alto nivel de operatividad.